

Erabakiak:

1. Eskerak eman Bilboko, *Euzkadi*, *Gaceta del Norte*, *Nervión*, *La Tarde*, *El Pueblo Vasco*, *Noticiero*, ta Iruñako *Pensamiento Navarro* deitzen diran egunekoai, euskerazko zerenda batzuek, eren orialdetan azaltzen dituztelako.

2. Olabide euskaltzañak egin duen *Lorestiaren* batzaldirako deya argitaratu.

3. Azkue jaunak irakuñi duen *bai* aditz-auizki txostena Euskaltzain bakotxari bidali.

4. Victor Colins'en liburuak garesti deritzazkiyo Euskaltzaindiari; ta oyetatik zer erosi ditekeneko aukera zúaren baimena Lakonbe euskaltzainari ematen zayo.

*Gero-geroko* ta beste liburu batzuen autabidea beroni ematen zayo.

Ta besterik ez da, batzaldiai amai eman zitzayon oiturazko otoitzez.

---

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi - Jauregian,  
1921 'ko Oñila'ren 27'an.**

Batzañ aldian bildu diran euskaltzañak abetxek dira: Azkue, maipuru, Kanpion, Urkixo, Lakonbe, Landeñetxe, Altube, Intza, Olabide, Eguskitza, Eleizalde ta Intzagarai: urgazlerik batez.

Erabakiak:

1. Emendik aurrerontzean, euskaltzañak, batzar nagusia baño ordu-erdi edo ordu-bete lenago, batzar txikitan bilduko dira, bizkaitar, napañar, gipuzkoar ta lapuñdi-zuberotarez zatituak.

2. Napañuako Aldundiak Euskaltzaindiari agindu-ta daukayon sorozpidea Kanpion ta Intza jaunak jaso bezate, jaun abek deritzazkiten euskera aldezko lanak Napañuan bertan eragiteko.

3. Euskaltzain bik Lekarozko Ikasguan, bertako ikasleai 400 *peseta* saritzat emanaz, (Euskaltzaindia an zalarik egindako euskal-jolasketagatik) egin duten ikeraldia, Euskaltzaindiak ontzat eman du.

4. Eguskitza jaunak *bai* aditz-aurrizkitzaz txosten eder bat irakuri du.

5. Aita Lezo'ri argitaratu nai dituan igandetako itzaldientzat Euskaltzaindiak *mila peseta* aurreratzen dizkiyo, gero Euskaltzaindi berari biurrizkotan orde. Itzaldi ayek aztertzeko ardua Eguskitza ta Intzagarai euskaltzañai egotzi zaye.

Ta besterik gabe gaurko beintzat, egun ontako batzaraldiari, oizko otoitzaz, amaitez eman zitzyon.

---